

Piano doinuak Musscherentzat

2011N ezagutu zuten elkar Wim Mertens piano jotzaileak eta Kirmen Uribe idazleak. Orduko hartan, Bilboko Euskalduna Jauregian egindako poesia jardunaldietan, zenbait poema irakurri zituen Uribek, Mertensen piano doinuak lagunduta. Elkarrekin lan egitea sortzaile bien gustukoa izan zen, Bruselako Passaporta Literatura jaialdian berriz ere topo egitean, eta Robert Musscheren istorioaren berri izaterakoan, piano jotzaileak ikuskizun bat egitea proposatu baitzion. Zenbait pasarte ingelesera itzuli eta berehala bidali zizkion Mertensi, eta hura konposatzen hasi zen berehala, testuok inspiratuta. Horrela sortu zen *Mussche* nobelako pasarteak eta Win Mertensen musika batzen dituen kontzertu-errezitaldia.

Madrilen estreinatu zuten obra, abenduaren 1ean. Gerora, Donostian eta Bilbon eskaini dute. Logroñon (Errioxa) ere izan dira, eta laster, Bartzelonara eta Belgikara joko dute, Robert Musscheren jatorrizko herrira. “Donostiako ikuskizuna egin genuenetik, emanaldi guztiak euskaraz egitea erabaki dugu, tokian tokiko hizkuntzen

azpizitulez lagunduta” azaldu digu Kirmen Uribek. Mertensi izugarri gustatzen omen zaio gure hizkuntzaren doinua, eta horregatik, hurrengo ikuskizunak, nahiz eta Euskal Herritik kanpo izan, eleberraren jatorrizko hizkuntzan eskaintzea erabaki dute sortzaileok. Gure hizkuntzak eta kulturak bizi duten bazterketa eta gutxiespenaren aurka, zenbait mito hausten dituen jarrera, dudarik gabe.

Istorioren errealaren indarra

Kirmen Uribek, Robert Musscheren idazle flandriarrari buruz kontatutako istorioak, hainbat irakurle hunkitu ditu dagoeneko, bai Euskal Herrian, baita kanpoan ere. Win Mertens dugu horietariko bat, flandriarra izaki hura ere.

“Hau da benetako abanguardia” esan omen zion Mertensek Uriberi, “ez delako ohiko poesia-errezitaldia, prosa baizik. Eta, nobelak badu erritmo mekanikoago bat, lokomotora edota makina baten antzekoa. Eta, Wimek idatzitako musikak ere erritmo bera du, makina baten antzekoa” azaldu digu idazleak. “Gainera, hizkuntza txiki batean, nazioar-

tean ezagutzen ez den hizkuntza batean egitea ere erakargarria egiten zitzaion Wimi”.

Baina, batez ere, historiak berak du indarra, idazlearen ustez. “Kontatzen dena oso gogorra da. Jendeak badaki benetan izandako pertsona batez ari garela, eta horrek sekulako indarra ematen dio ikuskaritari, ez baita gauza liriko bat”. Literaturan eta zinemagintzan ohikoa da errealitatetik fikzioa egitea. “Sekula ez da ahaztu behar, dena da fikzioa. Baina irakurleak benetakoa balitz bezala hartzen du. Izen-abienez aritzeak lotu egiten du, bai irakurlea, baita, ikuskitzaren kasuan, entzulea ere”. ■

Myriam Garzia



Ekain berri

Euskal Kulturaren sustiraiak

Sarreraren salmenta | Venta de entradas

ONLINE

www.ekainberri.com

943 86 88 11